

# Anaien herrialdean

Munduan barrena dexente ibili ondoren, gutxitan senditu dut Gales-en (Cymru-n hobe, oker ez banago) senditu nuen anaitasun giroa. Anaitasuna, hasteko, anai-gisa errezebitu ninduten adis-kide eta borrokakideengan-tik. Baina anaitasuna ere bai geografiaren aldetik, mendi-mazelen berde hezearenetik, irrimiri iraunkorrenetik, eta mila aldiz abar. Eta Cymru-k daraman herri-burruka ezagututa, zer erantsiko?

Banindoan trenez zelai berdeetan barrena Mendebalderantz; eta iritsi orduko hauxe irakurri nuen bertako «The Cambrian News» aldizkarian: «Language campaigners jailed for TV plot» (alegia, hizkuntzaren aldeko borrokalari bat kondenatua, telebistaren aldeko konplota dela bide). Uztailearen 3-a zen; eta bederatzi hilabete presondegi jaso zituen militantea, 28 urtetako irakaslere bat: Wayne Williams, «Cymdeithas» mogimenduko lehendakaria gaur. 43.000 esterlinatoko hondamendia leporatu zizkioten (zortzi bat miloi peseta, gutxi gora-behera). Telebista-Kanalaren aldeko kanpañan barrena, hiru antenetan egindako kalteengatik: East Harptree, Goosemor eta Midhurst. Harekin batera, bi ikasle ere izan ziren kondenatuak: Tomos Owen, hogeitun urte, eta Arwyn Sambrook, hogeita-bi. Euskal Telebistaren aldeko kanpaña ezagututa, zertarako besterik ezer erantsiko? Etxen!!

Aberystwyth-en nintzen, Cymru-ko kostaldean, Cardigan-kolkoaren erdi-erdian. Udaiarrak eta turistak azalzen hasiak ziren; eta ikas-



leak, aldiz, ia osoki joanak. Cymru-ko bihotza, hein batez bederen, Aberystwyth herriska urrenean dago gaur. Nazioaren artxiiboak han daude; eta intelektual franko ere bai. Zazpi mila biztanle: Oñati Zarautz-en.

Ned Thomas adiskideak zer bait mamitsu erakutsi nahi, eta ba omen zuen soluzioa. Biharamunean, hain zuzen, urtean bitan baizik ez gertaturik ere, Aberystwyth-era biltzekoa zen «Yr Academi Gymreig» delakoa; hau da, Euskaltzaindiaren kidea. Eta parte hartzera gomitatzen ninduten. Jakina: baietz esan nuen. Xehetasun bat eman behar, dena dela: Gales-ko Akademiak bi sail dituela: ingelesezkoa bat, galesezkoa bestea. Normalean zein bere aldetik biltzen dira; baina ez omen dago elkarrekiko gorrotorik.

Lehenengo sorpresa: hasteko afaria genuela "The Groves" bazkaldegian, Aberystwyth-en bertan... Euskal Herrian bezala galestarrak honetan ere! Biltzarra afal ondoan bakarrik (emakume baten sarrera-hitzaldia); eta biharamun goizean jarraituko.

Williams «cymruzainburua» aurkeztu dit Ned Thomas-ek (Williams hau ere, beste anitz galestar bezala); eta Villasanteren kidea frantziskotarra ez dela esan behar dut. (Apaiz bakar bat Aberystwyth-eko bileran, oker ez banago: 14 gizaseme eta 3 emakume egun hartan; baina erdia baino gehiago falta omen). Eta banan-banan beste guztiak. Koordinatzaile eta sustatzaile, dudarik gabe, Ann Beynon andereño gaztea. Erdia baino gehiago, «cynruzain»en ar-

tean 60 urtetik gorakoak.

Afaria galanta izan genuen. Neure ondoan, frantsesez aisa ari, hango Plazido Mugika izan nuen: Bangor-ko Unibertsitatean irakasle dagoen Bruce Griffiths jauna. Bera bakarrik, eta ia laguntzarik gabe, ingeles-cymru hiztegiaren moldaketa dararama aurrera.

Afaria bukatuta «Ty'r Staff» etxera aldatu ginen, bazkaldegia ondoan; eta han hasi zen bilera. Galesez den-dena, esan beharrik ez dago. Lehendakariak hartu du hitza; eta, neri begira, hitzaldi labur bat egin du. Gero txalo beroa jo diote bisitari honi. Eta orduan Marion Eames andere eta akademitar berriari eman dio txanda. Ned Thomas neukan aldamenean; eta honi esker jarraitu nuen haria: Eames andereak bere bostgarren no-

bela zer den azaldu zuen. Gero elkarrizketa izan zen, eta biharamunera arte. Honela izan zen ene bataioa galestarren artean. Hizkeraren «ll» gorra eta «pj» ugariak ez zaizkit erraz ahaztuko. Gero garagardoan txanda etorri zen; eta hirurak aldean-edo gu joan ginenean, akademikoen erdia eta Ann Beynon sekretaria hantxe gelditu ziren, presarik gabe, iji-eta-uju...



Xehetasunetan sortu beharrik gabe, hor du irakurleak aztarren bat: bere bostgarren nobela azaldu zuen Eames andereak. Oso oker ez bano, hobeki dago galesa euskara baino; eta maila askotan.

Eta jadanik Cymru-ko Euskaltzaindiak errezebitua izan ondoren pozik nengoelarik, beste aukera aparta bat eskaini zidan Cardiff-en Meic Stephens adiskideak: «Bihar,

hain zuzen, bazkari bat eskaintzen diogu Gales-ko Telebista-kanale berriaz arduratuko denari. Nahi al duzu etorri?». Berriz baiezkoa, noski.

Bazkaria oso dotorea izan zen, eta ezinago dotorea den «Park Hotel» delakoan. Ehun bat lagun bildu ginen; eta bazkal ondoko hitzaldiak ez ziren faltatu. Den-dena galesez, hitzaldietan eta bazkarian barrena. Zinez, ez dut uste Bilbon beste horrenbeste espero litekeenik; eta are gutxiago burgeskume dotoreen artean. Barcelonan bai, jakina. Eta, dirudienez, Galesko burgesi txikiak lagundu du erruz galesezko katearen arazo honetan.

Egon, ordea! zeren-eta bazkari dotore hyper-burges horretan, telebista-kateaz arduratuko diren hiru buruzagiei eskainia, neure ezkerre-



tan, sozialismoaz eta nazio-arazoaz bero-bero hizlari, Gareth Miles berbera bainekukan! Alderdi marxista-leninista abertzalearen sorkuntzan abiatua, Miles sindikalista saiatua da (Gales-ko Irakasleen Elkartearen darama, gaizki ulertu ez banion); baina ez omen du inoiz ingelesez idatzi, ez idatziko ere. (Ingelesez eta galesez batera dauden izkribu batzuek ikusi ditut, dena dela). Kataluñan eta Flandes-en bezala, hizkuntza denen helburua da, abertzaleen artean behintzat. Eta Cymru-n denen kezka da «Rafod y Ddraig» delakoa, Herensugearen mihia.

Joan aitzinetik zalantzan nengoen; orain ez. Orain badakit: hizkuntza arazoa hobeki dago Cymru-n Euskal Herrian baino. Dudarik gabe. Amuritzak lehengoan, Baztan-dik itzultzean, idatzi zituen lerro saminak egia bai-zik ez dira. Gure herrian ez dago euskaltzaletasunik. Aski da pitin bat ibiltzea munduan barrena honetaz jabetzeko. Kruttwig-ek esana

duen bezala: gure herriak du bere hizkuntza maila «Petit nègre» bihurtu gaituz barrabiletaraino. Egia hutsa.

Baina Galesen ere mundu daude. Aberystwyth eko hondartza eta muño lehenak neure barruan bizi-bizirik neuzkanean, oso burutu zio txalogarria izan zuen Ned Thomas-ek: ikatzaren eskua deetan zehar pasatzea.

Eta Richard Burton eta Neil Jenkins batera eman dutuen lurralde garratz hartan gure Bizkaiko mendebalde gogorazi zidan. Merthyr Tydfil, Pontypridd, kapitalismo gorri eta basaren seaske odoltu haiek, etxetxo ilara azkengabe haiek, ifernu beltz hura (gaur hustutzen hasia) oso ikuskari ezaguna zitzaidan.

Eta Ned Thomas-ek Aberystwyth-en kotxea gelditu zuenean (116 haur hilik lubizko eskola ikazperatu zuenean) gure Ortuellaz oroitu nintzen.

Zenbat arrazoi Gales matatzeko, eta hango borroka-gizonekin elkartzeko!

Eta ez dut uste gaitzaile nirengo ginatzenik!